

Kabareta, erregea eta bufoia

Antzerkia, dantza, musika eta bertsolaritza ardatz dituzten zenbait obraren estreinaldiak eskainiko ditu Korrika Kulturalak

Benito Lertxundik Gasteizen emango duen kontzertuarekin hasiko da, larunbat honetan

Irene Berro Durango

Euskara gizarteko esparru guttiara eramatea ez ezik, euskal kultura bultzatzea ere badu helburu Korrikak. Horregatik, euskararen aldeko maratoia hasi baino bi hilabete arinago hainbat kultur ekitaldi antolatzen ditu AEK-k. Denak ere, Korrika Kulturala deritzen ekimenaren barruan. Aurten «gitarau oparora» prestatu dutela nabarmendu dute Edurne Brouard 16. Korrikako koordinatzaileak eta Sergio Regueiro Korrika Kulturalaren arduradunak. «Euskarazko arte eszenikoak bultzatzeko eta euskal sortzaile hasi berriei bidea egiten laguntzeko», esan dute.

Heldu den larunbatean hasiko da Korrika Kulturala, Gasteizen; Benito Lertxundik *Itsas ulu zolia* disko berria aurkeztuko du, Mendizorrotxa kiroldegian. Eta, orotara, 30etik gora emanaldi izango dira Korrika Kulturalaren barruan, Euskal Herriko hainbat tokitan, apirilaren 5a bitartean. Orduan bukatuko da Korrika bera, azken

lasterkariak eta lekukoa Gasteizera heltzearekin batera.

'Mirande kabareta'

«Ikuskizun lotsagabea, ausarta eta politikoki ez-zuzena» aurkeztuko dute Galder Perez eta Ane Zabala aktoreek eta Edorta Jimenez idazleak. Kabaretaren eta antzerkiaren artean, kafe giroan jardungo dute antzezle eta musikariek. Perez, Zabala eta Jimenez bi musikaririk lagunduko baitiete: Txuma Murugarrenen eta Rafa Acebese.

Jon Mirande idazle eztabaidatu bezain goratuaren bizitzako pasarte bat du abiaburu *Mirande kabareta* ikuskizunak. Obrak aurrera egin ahala, ordea, hala antzezleek nola musikariek ustekabeko bideetatik joko dute, zirikatzaile eta lotsagabe. Sexutik politikara egingo dute, eta politikatik sexura. Betiere Edorta Jimenez idatzitako testuei jarraiki. Bilboko Balcon de la Lola aretoan estreinatuko dute obra, otsailaren 26an.

'Kanpaiak jo bitartean'

Umedun geratzeko asmotan, ospitalera joango da neska bat (Libe Aranburu aktorea). Intseminazio artifiziala egin diezaioten nahi du. Erietxean dela, hilero hara joaten diren emalleetako bat ezagutuko du ezustean (Ugaitz Alegria aktorea). Elkar ezagutu behar ez duten arren, behar baino hobeto ezagutuko dute elkar azkenean. Eta etengabeko gaizki ulertuan murgilduko dira, ikus-entzuleei komedia barregarri eta eroa eskainita. *Kanpaiak jo bitartean* obra Galder Perezek idatzi eta zuzendu du, eta Elgoibarko Herri Antzokian estreinatuko dute, otsailaren 13an.

'Ibañeta'

Piarres Larzabalaren *Ibañeta* antzeulanaren bertsio gaurkotua eskainiko du Ander Lipusek Korrika Kulturalaren barruan. Obra, berez, ez da berria. Ipar Euskal Herrian eman dute jada, baina Hego Euskal Herrian ez dute inoiz erakutsi. Karlomagoren tropek Nafarroa okupatu zuteneko unea jasotzen du *Ibañeta*-k. Batzuek indar okupatzaileei aurre egin zieten; besteek, aldiz, lagundu egin zieten. «Gogoetarako obra polita» dela adierazi du Lipusek. Hamaortzi aktoreekin emango du Lipusek, Donostiako Antiguako frontoian, martxoaren 14an.

'Erregea eta bufoia'

Bertsoa eta antzerkia uztartzen dituen lan bat aurkeztuko dute Ander Lipusek, Unai Elizasuk eta tokian-tokian aldatuz joango den bertsolari batek. Erregea (bertsolaria) hainbat pertsonaiaz baliatuko da bufoiaren hitzei aurre egiteko. Eta bufoiak (Lipus), berriz, erregearekin jolastu nahi izango du, burla eta trufa eginez. Ez du lan erraza izango, ordea. Bertsolaria errege baita bat-bateko jardunean. Elizasuk gaiak jarriko ditu. Eta horiek aldatuz joango dira, herriaren arabera. Beraz, obra desberdina izango da toki bakoitzean. Tolosako Leidor antzokian estreinatuko dute, otsailaren 7an.

'Anitzak Hitzak'

Anitzak etorkinen elkarrearen eskuetik sortu da *Anitzak Hitzak* obra. Musika, bertsolaritza, hip hopa eta multimedia nahastuko dituzte horretan. Bost bideo sortzailek parte hartuko dute, Xabier Silveira bertsolariarekin eta MC Barakaldoko hip hop abeslariarekin. Anitzak-en mezuak plazartuko dituzte denek. Errenteriako Niessenaretoa egingo dute lehen emanaldia, martxoaren 15ean.

'Soka'

Kukai dantza taldeak *Soka* izeneko obra estreinatuko du Korrika-

ren hasierako ekitaldian, Tuteran, martxoaren 26an. Dantza garaikideak eta tradizionalak perkusioarekin bat egiten dute konpainiaren lan berrian.

'Munduko zaintzaileak'

Ander Izagirrek *Munduko zaintzaileak*. *Euskal Herriko 20 sekretu txiki* izenburuko diapositiba emanaldia eta hitzaldia egingo du hainbat herritan, Korrika Kulturalaren barrenean. Euskal Herriko zenbait txoko berezi eta hainbat pertsonaia irestoriaz azalduko ditu Izagirrek.

'Atxikistan'

Eidabe taldeak umeentzako ikuskizun bat estreinatuko du Ondarroako antzokian martxoaren 6an: *Atxikistan*, *Kanpanoie marztan*. Musika eta antzerkia uztartu dituzte lan horretan.

'Karrika korri'

Zirko Tipiak Korrika zer-nolakoa den azalduko die haurrei, *Karrika Korri* lanaren bidez. Horretarako, zirkuo ariketak, musika eta dantza baliatuko dituzte Zelenina eta Pibo pailazoek. Garraldan emango dute lehenengo, otsailaren 14an. Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek, halaber, *Piratak* lan ezagunaren hainbat emanaldi egingo dituzte Korrika Kulturalan.

Jon Maiak eta Betagarrik sortu dute 16. Korrikako abestia

→ Jon Maiak idatzi du 16. Korrikako abestia. *Ongi etorri* zango da Korrikaren leloa, eta hori kontuan harturik idatzi du abestiaren letra Maiak. Azaldu duenez, euskarara etorri nahi duen orori ongietorria egiteko kantua sortu du. *Ongi etorri* ez baita soilik etorkinentzako mezua. Hemengo jendearentzako mezua ere bada. «Trenean etorri direnei, Afrikatik edota Amerikatik heldu direnei... Denei ongietorria egiteko abestia idatzi dut. Baina hemengo herrien izenak ere aipatu ditut, hemendik ere hainbat jende etorri baita euskarara», esan du Maiak. Abesti «kantagarria» egin duela dio. Korrikakoa ez baita edozein abesti, bertsolariaren irudiko. «Mezu bat emateko da». Betagarriren doinuek jantzi dituzte Maiaren hitzak. Abesti «dantzagarria» egin du taldeak.



Korrika Kulturalan parte hartuko duten artistetako batzuk, atzo, Durangon, ekimeneko arduradun Sergio Regueiro eta Edurne Brouardekin. MONIKA DEL VALLE / ARP